



GAZTEEN ARGAZKIAK 2023



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Edizioa: 1.a, 2024ko martxo

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Ikerlariak:

Oskar Longo Imatz, Miren Bilbao Gaztañaga eta Nieves Corcuera Bilbao

Diseinua:

Gazteen Euskal Behatokia

Maketazioa:


Gazteen Euskal Behatokia

Itzulpena:

Gazteen Euskal Behatokia

ISSN: 2792-7067

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Lehendakaritza
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Presidencia



Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira: Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 4.0

Unported (<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)

Aurkibidea

1. SARRERA.....	2
2. METODOLOGIA.....	3
3. NORBERAREN EGOERAREN BALORAZIOA.....	4
3.1.Norberaren egoeraren balorazioa 0-10 arteko eskalan	4
3.2.Norberaren bizitzarekiko poztasuna.....	5
3.3.Norberaren lan-egoeraren balorazioa	7
3.4.Norberaren egoera ekonomikoaren balorazioa.....	9
3.5.Norberak hautemandako klase soziala	11
3.6.Hilabete amaierara iristeko arazo ekonomikoak	13
4. HERRI EDO AUZOAREN EGOERAREN BALORAZIOA.....	15
4.1.Bizi den herri edo auzoarekiko poztasuna	15
4.2.Herrian edo auzoan aparkatzeko arazoaren pertzepzioa	16
4.3.Ingurumen-arazoaren pertzepzioa herrian edo auzoan	18
4.4.Bizi den inguruaren segurtasunaren pertzepzioa.....	20
5. EUSKADIREN EGOERAREN BALORAZIOA.....	22
5.1.Euskadiren egoeraren balorazioa 0-10 arteko eskalan	22
5.2.Euskadik dituen arazo nagusiak	23
5.3.Euskadiren egoera ekonomikoaren balorazioa.....	28
5.4.Euskadiren egoera politikoaren balorazioa	30
5.5.Euskadin dauden zerbitzu publikoei buruzko balorazio orokorra.....	32
5.6.Eusko Jaurlaritzaren zenbait arlotako jardueraren balorazioa	34
5.7.Euskadiren etorkizunarekiko baikortasun-maila.....	41
6. ESPAINIAREN EGOERAREN BALORAZIOA.....	43
6.1.Espainiaren egoeraren balorazioa 0-10 arteko eskalan	43
6.2.Espainiak duen egoera ekonomikoaren balorazioa	45
6.3.Espainiaren egoera politikoaren balorazioa	47
7. JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK.....	49
7.1.Politikarekiko interesa	49
7.2.Ezker-eskuin eskalan kokatzea.....	51
7.3.Euskal nazionalismo edo abertzaletasunaren eskalan kokatzea.....	54
7.4.Euskal Herriaren independentziarekiko jarrera	56
7.5.Alderdi politikoren batekiko hurbiltasuna.....	58
7.6.Eusko Legebiltzarrean ordezkapena duten alderdi politikoeikiko begikotasuna	60
7.7.Botoa emateko ohitura	63
7.8.Beti alderdi politiko berari botoa ematea	65
7.9.Erakundeekiko konfiantza	67
8. LABURPENA.....	71

1.SARRERA

'Gazteen argazkiak' saileko txosten berri hau bildumaren 26garrena da, eta bertan jasotzen dira, alde batetik, Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko gazteek beren egoera pertsonalari eta Euskadiren eta Espainiaren egoera orokorrari buruz dituzten balorazioak, eta, bestetik, gazteek politikari, alderdi politikoei eta erakundeei buruz dituzten iritziak eta jarrerak.

Gazteen Euskal Behatokiak txosten hau egin du Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak bere webgunean publiko orokorraren eskura jartzen dituen datuetan oinarrituta; zehazki, 2023an 79., 80. eta 81. Euskal soziometroak egiteko burutu dituen inkestetatik sortutako datu-baseetan oinarritu da.

Kasu batzuetan, aurkeztutako datuak inkesta bakar batetik datoz, eta, beste batzuetan, galderak inkesta batean baino gehiagotan errepikatu direnean, txosten honetan ematen diren emaitzak azterlan horietan emandako erantzunen batuketatik datoz.

Dokumentuak bost gai nagusi ditu: egoera pertsonalaren balorazioa, herriaren edo auzoaren egoeraren balorazioa, Euskadiren egoeraren balorazioa, Espainiaren egoeraren balorazioa, eta, azkenik, balio eta jarrera politikoak. Horietako bakoitzean hainbat galdera daude, eta horietako asko aurretik ere egin izan dira, beraz, gazteen iritzien bilakaeraren berri ematen diguten aurretiazko datuak ditugu. Gainera, datu guztiak sexuaren, adin-taldean (18-24 urte eta 25-29 urte) eta gazteak bizi diren lurralde historikoaren arabera (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) bereizita aurkezten dira.

Datu horiek biztanleria orokorrari egindako inkestetatik ateratzeak aukera ematen du gazteen (18-29 urte) erantzunak 29 urtetik gorakoek emandakoekin alderatzeko, eta, horrela, alderik dagoen ala ez eta, izatekotan, zer motatakoak diren ikusteko.

Horrekin guztiarekin gazteen iritzien eta jarreraren ikuspegi zabala eman nahi da, ez bakarrik egungo egoeraren argazkia, baita aurreko urteekiko bilakaeraren eta 30 urte eta gehiagoko biztanleriaren iritzi eta jarreretikiko alderaketaren berri ere.

2.METODOLOGIA

Datuak Euskadiko lurralde historiko bakoitzeko 18 urte eta gehiagoko biztanleriaren lagin adierazgarriei telefonoz egindako banakako elkarrizketetatik datoz. Elkarrizketak hiru alditan egin ziren, 2023an zehar, Euskal Soziometroak bildumako 79., 80. eta 81. txostenetako landa-lanei zegozkien aldietan, hain zuzen ere. Hiru kasuetan, datuak biltzeko galdetegi egituratuak erabili ziren eta horietako galdera gehienak itxiak ziren.

79. Euskal Soziometroaren elkarrizketak 2023ko urtarrilaren 31tik otsailaren 16ra bitartean egin ziren; 80. Euskal Soziometroarenak, 2023ko maiatzaren 2tik 5era bitartean; eta 81. Euskal Soziometroarenak, 2023ko azaroaren 21etik 24ra bitartean.

Elkarrizketatu beharreko pertsonen hautaketa prozedura polietapiko eta estratifikatuaren bidez egin zen, udalerraren tamainaren arabera estratu proportzionalak erabiliz. Ondoren pertsonak sexuaren, adinaren eta lan egoeraren arabera kuoten bidez aukeratu ziren.

Hiru azterlanetako bakoitzean 3.030 elkarrizketa egin ziren, eta horietatik 395 18 eta 29 urte bitarteko gazteei egin zitzaizkien. Gazteen lagin horri dagokion lagin-errorea, teoriar lagina erabat ausazkoa izango balitz egotz daitekeena, \pm % 4,9koa da Euskadi osorako, % 95,5eko konfiantza-mailarekin eta $p=q=0,5$ izanik.

Ondoren, datu-base bakoitza lurralde historiko bakoitzeko biztanleriaren banaketaren, ikasketa-mailaren eta inkestaldi bakoitzaren aurreko azken hauteskundeetako botoaren arabera haztatu zen.

Ikerketa diseinatzea Prospekzio Soziologikoen Kabineteari dagokio; hark diseinatu zituen galdetegiak eta informazioa biltzeko prozedura, eta landa-lana kontratatu eta gainbegiratu zuen. Ikerfel enpresak informazioa bildu du, hau da, ordenagailuz lagundutako telefono bidezko inkestak (CATI) egin ditu, galdetegi egituratu eta itxiaren bidez.

Bestalde, Gazteen Euskal Behatokiaren ardura izan da gazteei dagozkien emaitzak aztertzea eta txosten hau egitea.

3. NORBERAREN EGOERAREN BALORAZIOA


3.1. Norberaren egoeraren balorazioa 0-10 arteko eskalan

ORAIN PENTSA EZAZU ZURETZAT GARRANTZITSUENAK DIREN GAUZETAN, 0-TIK 10 PUNTUTARA DOAN ESKALA ERABILIZ (0-AK BIZITZA OSO GAIZKI DOAKIZULA ESAN NAHI DU ETA 10-AK OSO ONGI), ZURE USTEZ, NOLA DOAKIZU BIZITZA GAUR EGUN?

0-10 BATEZBESTEKOA	18-29 urte	≥ 30 urte
Balorazioa	7,2	6,9
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	2635

Gazteek, 0tik 10era, 7,2ko puntuazioa ematen diote beren egoera pertsonalari, 30 urte eta gehiagoko biztanleek emandakoa baino apur bat nota hobea. Ez da gazteek beren egoera pertsonalari 7,2 puntu ematen dioten lehen aldia, baina nabarmentzekoa da seriean jasotako puntuaziorik altuena dela.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek beren egoera pertsonalari buruz une bakoitzean egindako balorazioaren bilakaera (0-10 arteko batez bestekoa)



25 urtetik beherako gazteek 25 eta 29 urte bitartekoek baino hobeto baloratzen dute beren egoera pertsonala (7,5 eta 7,0 ematen diote, hurrenez hurren).

18-29 urteko gazteen norberaren egoeraren balorazioa, kolektiboen arabera

0-10 BATEZBESTEKOA	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Balorazioa	7,2	7,2	7,2	7,5	7,0	7,2	7,1	7,2
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	212	183	108	287	95	171	129

3.2. Norberaren bizitzarekiko poztasuna


ETA ZURE BIZITZA PERTSONALARI DAGOKIONEZ, DARAMAZUN BIZITZAREKIN OSO POZIK ZAUDE, NAHIKOA POZIK, EZ OSO POZIK EDO BATERE POZIK EZ?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Oso pozik	25	28
Nahikoa pozik	54	53
Ez oso pozik	19	16
Batere pozik ez	2	3
Ed/Ee	0	2
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	2635

Kalifikazio akademikoetan erabili ohi den zenbakizko eskala klasikoa (0-10) erabili beharrean, daramaten bizitzarekin oso edo batere pozik ez egotearen arteko balorazio-eskala erabiltzen badugu, eta erantzun-aukera bakoitzaren inguruan biltzen diren pertsonen ehunekoa aztertzen badugu, ikusiko dugu daramaten bizitzarekin "oso pozik" daudela diotenen ehunekoa % 25 dela gazteen artean eta % 28 dela 30 urte eta gehiagoko pertsonen artean.

Bi kasuetan talderik handiena beren egoera pertsonalarekin nahiko pozik daudela adierazten dutenena da. Eta bi aukeren baturak (oso+nahikoa pozik) erakusten digu bai gazteen artean bai 30 urte eta gehiagoko pertsonen artean hamarretik zortzi pozik daudela beren bizitza pertsonalarekin.

Euskadiko gazteek eta 30 urtetik gorako biztanleek daramaten bizitzari buruz egindako balorazioen arteko alderaketa (%)



Bizitza pertsonalarekin oso pozik edo nahiko pozik daudela dioten gazteak batera kontuan hartuta, ikusten da gogobetetasuna handiagoa dela gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino (% 84 eta % 74, hurrenez hurren), eta handiagoa dela 25 urtetik beherako gazteen artean ere (% 88) 25 eta 29 urte bitartekoen artean baino (% 76).

18 eta 29 urte bitartekoek norberaren bizitzarekiko duten poztasuna, kolektiboen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso pozik	25	25	25	27	25	22	25	27
Nahikoa pozik	54	59	49	61	51	58	56	51
Ez oso pozik	19	15	23	11	23	16	18	21
Batere pozik ez	2	1	2	2	2	4	1	1
Ed/Ee	0	0	1	0	1	0	1	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	212	183	108	287	95	171	129


3.3. Norberaren lan-egoeraren balorazioa

ETA NOLAKOA DELA ESANGO ZENUKE ZURE EUNGO LAN EGOERA? OSO ONA, NAHIKOA ONA, NAHIKOA TXARRA ALA OSO TXARRA?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Oso ona	26	25
Nahikoa ona	46	49
Nahikoa txarra	20	12
Oso txarra	5	7
Ed/Ee	2	6
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	2635

Gazte gehienek uste dute beren lan-egoera oso ona edo nahiko ona dela. Hala ere, oso txartzat edo nahiko txartzat jotzen dutenen ehunekoari erreparatuz gero, ikusten da hori zertxobait handiagoa dela gazteen artean (% 25) 30 urteko eta gehiagoko biztanleen artean baino (% 19).

Gazteek eta Euskadiko 30 urte eta gehiagoko biztanleriak beren lan egoerari buruz egindako balorazioen arteko alderaketa (%)




Ez da alde aipagarriarik nabaritzen sexuaren edo adin-taldearen arabera.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen norbere lan-egoeraren balorazioa, kolektiboen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso ona	26	26	26	24	27	20	29	24
Nahikoa ona	46	47	46	45	47	50	48	42
Nahikoa txarra	20	18	23	20	21	25	18	23
Oso txarra	5	5	6	5	5	3	4	8
Ed/Ee	2	4	1	6	0	3	2	2
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	212	183	129	266	95	171	129

Norberaren lan-egoerari buruzko balorazioak oso gutxi aldatu dira azken urteotan; oso ona edo nahiko ona dela uste dutenen ehunekoak igo egin da 2019. urtearekiko, baina orduan galderari erantzun ez ziotenen ehunekoak hamar puntu handiagoa izan zen.

18 eta 29 urte arteko gazteek beren lan egoerari buruz egindako balorazioaren bilakaera (%)



3.4. Norberaren egoera ekonomikoaren balorazioa


ETA NOLAKOA DA GAUR EGUNGO ZURE EGOERA EKONOMIKO PERTSONALA...?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Oso ona	8	5
Ona	61	71
Txarra	25	18
Oso txarra	6	5
Ed/Ee	0	2
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	2635

Gazte gehienek ere uste dute beren egoera ekonomikoa ona dela, baina ia hiru gaztetik batek txartzat jotzen du (txarra edo oso txarra dela dio).

30 urte eta gehiagoko pertsonen artean, egoera ekonomiko pertsonalaren balorazioak zertxobait positiboagoak dira.

Gazteek eta Euskadiko 30 urte eta gehiagoko biztanleriak beren egoera ekonomikoari buruz egindako balorazioen arteko alderaketa (%)



Gizon gazteek emakume gazteek baino zertxobait positiboagozat jotzen dute beren egoera ekonomiko pertsonala.

18 eta 24 urte bitarteko gazteen balorazioak ere positiboagoak dira 25-29 urtekoek emandakoak baino. Balorazio horietan eragin handia dute aurre egin beharreko zirkunstantziak eta gastu ekonomikoak, eta 25-29 urtekoen artean ohikoagoa da, 25 urtetik beherakoen artean baino, kostu ekonomiko handia dakarten emantzipazio-proiektuei ekitea.


Bizkaian bizi diren gazteek dituzte balorazio negatiboak; hala ere, gehienek uste dute beren egoera ekonomiko pertsonala ona dela.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen norbere egoera ekonomikoaren balorazioa, kolektiboen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
		Oso ona	8	6	9	13	5	9
Ona	61	67	54	60	62	66	57	67
Txarra	25	20	32	18	29	20	27	24
Oso txarra	6	6	5	8	4	4	8	2
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	1
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	213	182	115	280	95	171	129

Egoera ekonomiko pertsonalaren balorazioen bilakaerak erakusten digu 2023ko datua 2017an eta 2019an erregistratutakoen batez bestekoan dagoela, baina 2013an erregistratutakoa baino dezente positiboagoa da.

18 eta 29 urte arteko gazteek beren egoera ekonomikoari buruz egindako balorazioaren bilakaera (%)



3.5. Norberak hautemandako klase soziala


ZEIN KLASE SOZIALETAN KOKATZEN DUZU ZURE BURUA...?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Erdi mailatik gora	16	11
Erdi mailan	46	45
Erdi mailatik behera	38	43
Ed/Ee	0	1
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	790	5270

Gazteen ia erdiak (% 46) klase sozial ertainekotzat jotzen du bere burua. Eta gehiago dira beren burua klase ertain-baxukotzat jotzen dutenak klase ertain-altukotzat jotzen dutenak baino.

Biztanleria osoan, beren burua erdi mailatik gora eta erdi mailatik behera kokatzen dutenen arteko alde hori are nabarmenagoa da gazteen artean baino.


18 eta 29 urte arteko gazteek eta 30 urte edo gehiagoko biztanleek beren burua kokatzen duten gizarte-mailaren arteko alderaketa (%)



2022an eta 2023an, 2021ean baino gazte gehiagok kokatzen dute beren burua gizarte-mailaren batetan (2021ean gazteen % 13k uko egin zion bere burua kokatzeari).

2022tik 2023ra apur bat gora egin du beren burua klase sozial ertain-altukotzat jotzen duten gazteen ehunekoak, beren burua klase sozial ertain-baxukotzat jotzen dutenena jaitsi den proportzio berean.

18 eta 29 urte arteko gazteek duten gizarte-mailaren autopertzepzioaren bilakaera (%)



18 eta 24 urte bitarteko gazteek 25 eta 29 urte bitartekoek baino gizarte-maila altuagoan kokatzen dute beren burua, ziur asko 25-29 urtekoek baino gastu ekonomiko txikiagori egin behar diotelako aurre.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek hautemandako clase soziala, kolektiboen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Erdi mailatik gora	16	17	14	22	12	13	16	16
Erdi mailan	46	44	49	52	43	48	44	49
Erdi mailatik behera	38	39	37	26	45	39	40	35
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	790	424	366	237	553	190	342	258

3.6. Hilabete amaierara iristeko arazo ekonomikoak


ZUK IZATEN DUZU ARAZO EKONOMIKORIK HILABETE BUKAERARA HELTZEKO?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Bai, arazo asko	9	7
Bai, arazo batzuk	31	24
Ez	59	69
Ed/Ee	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	2635

Hamar gaztetik lauk diote hilabete amaierara iristeko arazo ekonomikoak dituztela, baina arazo asko dituztela diotenen ehunekoa % 9ra mugatzen da.

Hilabetearen amaierara iristeko arazo ekonomikoak dituzten gazteen ehunekoa 30 urte eta gehiagoko biztanleriarena baino zertxobait handiagoa da.

18 eta 29 urte arteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek hilabete bukaerara heltzeko dituzten diru arazoentzako alderaketa (%)



Hilaren amaierara iristeko arazoak dituztela dioten emakume gazteen ehunekoa gizon gazteena baino handiagoa da. 25 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean ere 18 eta 24 urte bitartekoek baino neurri handiagoan adierazten dute hil amaierara iristeko arazo ekonomikoak dituztela.

Arazo ekonomiko gehiago dituztela dioten kolektiboak (emakumeak eta 25-29 urtekoak) bat datoz emantzipazio-tasa handiagoak izatean, eta horrek adierazten du emantzipatutako gazteek gurasoen etxean bizi direnak baino arazo ekonomiko gehiago izaten dituztela normalean.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen hilabete amaierara iristeko arazo ekonomikoak, kolektiboen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Bai, arazo asko	9	8	10	6	11	10	9	9
Bai, arazo batzuk	31	26	37	28	33	34	29	33
Ez	59	66	52	66	56	56	61	57
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	212	183	108	287	95	171	129

4. HERRI EDO AUZOAREN EGOERAREN BALORAZIOA


4.1. Bizi den herri edo auzoarekiko poztasuna

ZEIN NEURRITAN ZAUDE POZIK BIZI ZAREN AUZO/HERRIAREKIN? MESEDEZ, ERABILI EZAZU OTIK 10ERAKO ESKALA, 0-AK "BATERE POZIK EZ" ETA 10-AK "OSO POZIK" ZAUELA ADIERAZTEN DUTELARIK?

0-10 BATEZBESTEKOA	18-29 urte	≥ 30 urte
Balorazioa	7,5	7,3
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	2635

Gazteak pozik daude bizi diren herri edo auzoan eta, 0tik 10era, 7,5 puntuko balorazioa ematen diote.

18 eta 29 urte arteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek bizi diren herri edo auzoarekin duten poztasunaren arteko alderaketa (0-10 arteko batez bestekoa)



Ez dago alde nabarmenik gazteen artean, sexuaren, adinaren edo bizi diren lurralde historikoaren arabera, ez eta 30 urtetik gorako biztanleriaren aldean ere.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen bizi diren herri edo auzoarekiko poztasuna kolektiboaren arabera

0-10 BATEZBESTEKOA	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Balorazioa	7,5	7,4	7,5	7,7	7,4	7,5	7,4	7,5
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	212	183	108	287	95	171	129

4.2. Herrian edo auzoan aparkatzeko arazoentzako pertzepzioa


BIZI ZAREN AUZO/HERRIARI DAGOKIONEZ, APARKATZEKO ARAZOEN KEXATZEKO ARRAZOI ASKO, BATZUK, GUTXI EDO BAT ERE EZ DUZU?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Asko	43	40
Batzuk	20	17
Gutxi	12	12
Bat ere ez	24	28
Ed/Ee	1	2
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	2635

Gazte gehienek diote bizi diren herrian edo auzoan aparkatzeko arazoak daudela.

Gazteek 30 urte eta gehiagoko biztanleek baino zertxobait gehiago hautematen dituzte aparkatzeko arazoak.

18 eta 29 urte arteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek beren herrian edo auzoan aparkatzeko arazoentzako buruz duten pertzepzioen arteko alderaketa (%)



Gizonek emakumeek baino gehiago adierazten dute arazoi asko daudela beren herriko edo auzoko aparkaleku-arazoen kexatzeko. 25 eta 29 urteko bitartekoek ere 18 eta 24 urte bitartekoek baino gehiago adierazten dute arazo hori. Gizonak eta 25-29 urteko pertsonak dira aparkatzeko arazoen gehien kexatzen direnak; normalean, emakumeek edo 18-24 urteko gazteek baino gehiago gidatzen dute, eta, beraz, gehiago jabetzen dira arazo horretaz.

Bestalde, Gipuzkoako gazteak dira gehien kexatzen direnak beren herriko edo auzoko aparkaleku-arazoen.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek bizi diren herri edo auzoan aparkatzeko dituzten arazoentzako pertzepzioa, kolektiboen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Asko	43	47	39	30	49	32	42	49
Batzuk	20	20	20	27	16	28	19	18
Gutxi	12	9	15	11	13	14	12	12
Bat ere ez	24	23	26	30	22	25	26	21
Ed/Ee	1	1	0	1	0	1	1	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	212	183	129	266	95	171	129

4.3. Ingurumen-arazoen pertzepzioa herrian edo auzoan

BIZI ZAREN AUZO/HERRIARI DAGOKIONEZ, ONDOREN AIPATZEN DIRENEI BURUZ KEZKATZEKO ARRAZOI ASKO, BATZUK, GUTXI EDO BAT ERE EZ DUZU...

%		18-29 urte	≥ 30 urte
Zarata maila	Asko	8	13
	Batzuk	14	17
	Gutxi	34	26
	Bat ere ez	44	44
	Ed/Ee	0	0
Airearen kutsadura	Asko	9	10
	Batzuk	13	18
	Gutxi	34	29
	Bat ere ez	43	42
	Ed/Ee	2	2
Trafiko arazoak	Asko	9	18
	Batzuk	20	20
	Gutxi	32	28
	Bat ere ez	39	33
	Ed/Ee	0	1
Ehuneko bertikalak		100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)		395	2635


Oro har, gazte gehienek diote beren herriari edo auzoari dagokionez, arrazoi gutxi edo bat ere ez dagoela ingurumen-arazoez kexatzeko, hala nola trafiko-arazoez, airearen kutsaduraz edo zarata-mailaz.

Kexatzeko arrazoi asko edo batzuk daudela diotenak batera kontuan hartzen baditugu, ikusten dugu gazteei eta 30 urteko eta gehiagoko biztanleei beren herrian edo auzoan gehien eragiten dieten ingurumen-arazoak trafikoarekin lotutakoak direla, lehenik eta behin, eta airearen kutsadurarekin eta zarata-mailarekin lotutakoak, bigarrenik.

29 urtetik gorako pertsonak 30 urtetik beherako gazteak baino gehiago kexatzen dira trafiko-arazoez, bai eta (aldea hain nabarmena ez bada ere) zarata-arazoez eta airearen kutsaduraz ere.

Gazteen talde guztiak kexatzen dira gehiago trafiko-arazoez, airearen kutsaduraz edo zarata-mailaz baino. Kolektiboen arteko alde nagusia da 25 eta 29 urte bitarteko gehiagok kexatzen direla zarata-maila eta airearen kutsadura direla eta.

Beren herrian edo auzoan ingurumen arazo batzuez kexatzeko arrazoi asko edo batzuk badituztela dioten 18 eta 29 urte arteko gazteen eta 30 urte eta gehiagoko biztanleen ehunekoaren arteko alderaketa (%)



18 eta 29 urte bitartekoaren ingurumen-arazoaren pertzepzioa herrian edo auzoan, kolektiboaren arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak			
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
Zarata maila	Asko	8	7	9	2	11	7	8	8
	Batzuk	14	15	13	15	13	17	13	15
	Gutxi	34	33	36	32	36	31	36	33
	Bat ere ez	44	46	42	51	41	46	43	46
	Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0
Airearen kutsadura	Asko	9	8	10	5	11	6	9	9
	Batzuk	13	12	13	12	13	12	14	10
	Gutxi	34	33	35	39	31	38	35	30
	Bat ere ez	43	46	41	44	43	44	40	49
	Ed/Ee	2	2	1	0	2	0	2	2
Trafiko arazoak	Asko	9	9	10	8	10	9	9	10
	Batzuk	20	19	21	22	18	25	18	19
	Gutxi	32	34	30	28	34	26	29	39
	Bat ere ez	39	39	40	41	38	40	43	33
	Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0
Ehuneko bertikalak		100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)		395	213	182	129	266	95	171	129


4.4. Bizi den inguruaren segurtasunaren pertzepzioa

ZURE HERRI EDO HIRIA BIZITZEKO LEKU SEGURUA DELA USTE DUZU?

%	18-29 urte		≥ 30 urte	
Bai, guztiz	46		35	
Gehienbat bai	46		54	
Gehienbat ez	6		9	
Ez batere	1		2	
Ed/Ee	1		0	
Ehuneko bertikalak	100		100	
n (absolutuak, haztatu gabe)	395		2635	


Hamar gaztetik bederatzik uste dute beren herria edo hiria bizitzeko leku segurua dela (% 92). Ehuneko horrek guztiz segurua dela uste dutenak eta gehienbat segurua dela uste dutenak biltzen ditu, eta 30 urte eta gehiagoko biztanleen artean erregistratutakoaren antzekoa da, nahiz eta gazteen artean 30 urte eta gehiagokoaren artean baino gehiago diren guztiz segurua dela deritzotenak.

18 eta 29 urte arteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek beren herriko edo hiriko segurtasunari buruz duten pertzepzioen arteko alderaketa (%)



2022tik 2023ra zertxobait handitu da beren herria edo hiria guztiz segurua dela uste duten gazteen ehunekoa.

18 eta 29 urte arteko gazteek beren herriko edo hiriko segurtasunari buruz duten pertzepzioaren bilakaera (%)



Beren herria edo hiria guztiz segurua dela usten duten pertsonen errepertorioa, ikusten dugu gizonek segurtasun handiagoa sentitzen dutela bizi diren udalerrian emakumeek baino.

Gipuzkoan beste herrialdeetan baino gehiago dira udalerria erabat segurua dela uste dutenak, baina ez dela segurua uste dutenen ehunekoak ere besteetan baino handiagoak da.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek bizi diren auzo edo herriko segurtasunari buruz duen pertzepzioa, kolektiboaren arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Bai, guztiz	46	51	41	49	44	37	46	50
Gehienbat bai	46	40	52	42	47	59	47	38
Gehienbat ez	6	7	5	8	5	3	5	10
Ez batere	1	1	2	0	2	2	0	3
Ed/Ee	1	1	1	0	2	0	2	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	212	183	129	266	95	171	129

5.EUSKADIREN EGOERAREN BALORAZIOA


5.1. Euskadiren egoeraren balorazioa 0-10 arteko eskalan

0-10 PUNTU BITARTEKO ESKALA BAT ERABILIZ, 0 OSO TXARRA DELA ETA 10 OSO ONA DELA, ZURE USTEZ, NOLA DOAZ GAUZAK EUSKADIN?

0-10 BATEZBESTEKOA	18-29 urte	≥ 30 urte
Euskadiren egoerari emandako puntuazioa	6,1	6,0
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	2635

2023an, gazteek 10etik 6,1eko balorazioa eman diote Euskadiren egoera orokorrari, 30 urte eta gehiagoko biztanleriak emandako puntuazio ia bera (6,0). Puntuazio hori aurreko urtekoaren berdina da, eta 2017-2019 aldian erregistratutakoak baino baxuagoa.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek Euskadiren egoera orokorrari buruz emandako balorazioaren bilakaera (0-10 arteko batez bestekoa)



Talde guztiek emandako balorazioak oso antzekoak dira eta 6,0 eta 6,3 artean daude.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek Euskadiren egoerari buruz egindako balorazioa, kolektiboen arabera

0-10 BATEZBESTEKOA	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Euskadiren egoerari emandako puntuazioa	6,1	6,0	6,3	6,2	6,0	6,0	6,1	6,1
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	212	183	108	287	95	171	129

5.2. Euskadik dituen arazo nagusiak

ZURE USTEZ ZEINTZUK DIRA EUSKADIK DITUEN HIRU ARAZO NAGUSIAK?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Lan merkatuari buruzko arazoak	63	67
Etxebizitza	36	26
Arazo ekonomikoak	34	31
Osasungintza, Osakidetza, Gizarte Segurantza, osasuna	30	42
Egoera politikoa, politikariak eta gatazka politikoa	17	19
Zerbitzu publikoen funtzionamendua eta hedadura, laguntzak	16	13
Delinkuentzia, segurtasun falta	14	19
Hezkuntza	10	12
Immigrazioa eta horrekin lotutako arazoak (arrazakeria, xenofobia...)	10	10
Azpiegiturak eta garraioak	9	6
Arazo eta desberdintasun sozialak	7	6
Ingurumena	6	5
Hizkuntza egoerarekin lotutako arazoak	6	4
Gazteen arazoak	5	3
Arazo demografikoak: jaiotza-tasa baxua, biztanleria zahartzea	4	3
Pentsioak	4	4
Balioen krisia, norberekeria, intolerantzia, errespetu falta...	3	4
Ustelkeria eta iruzurra	2	1
Emakume eta gizonen arteko desberdintasuna	2	2
Adinekoei arreta eta laguntza	1	2
Nazioarteko egoera: nazioarteko krisia, gerrak, etab.	1	1
Energia krisia, energia-mendekotasuna, energia-prezioak	1	1
Turismoa, turismoaren kudeaketa	0	1
N (absolutuak, haztatu gabe)	1185	7905


Inkestatutako pertsonak berez emandako erantzunei kodea ezarri zaie. Ehunekoak 100 baino gehiago dira, hiru erantzun eman zitezkeelako.

Gazteen iritziz, Euskadiren arazo nagusiak lan-merkatuari lotutakoak dira, eta horretan bat datoz gazteen eta 30 urtetik gorakoen iritzia. Talde bietan, hiru pertsonatik bik aipatu dituzte lanari lotutako arazoak.

Lan-merkatuko arazoaren atzetik, horien aipamen kopuruaren ia erdia jasota, etxebizitza, arazo ekonomikoak eta osasungintzarekin edo osasunarekin lotutako arazoak aipatu dituzte gazteek. Hiru arazo mota horiek gazteen heren batek aipatzen ditu (% 30 eta % 36 artean).

Hirugarren blokean, gazteen % 10ek - % 17k artean aipatuta, egoera politikoa, zerbitzu publikoen funtzionamendua eta laguntzak, delinkuentzia eta segurtasunik eza, hezkuntza eta immigrazioa daude. Gainerako arazoek % 10etik beherako aipamen-ehunekoak dituzte.

18 eta 29 urte arteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek Euskadin hautematen dituzten arazo nagusien arteko alderaketa (%)




Inkestatutako pertsonen berez emandako erantzunei kodea ezarri zaie. Ehunekoak 100 baino gehiago dira, hiru erantzun eman zitezkeelako.

30 urte eta gehiagoko biztanleriarekiko desberdintasun nagusiak dira gazteek etxebizitzaren arazoa gehiago aipatzen dutela (hamar puntuko aldea) eta, aitzitik, osasungintzarekin edo osasunarekin lotutako arazoak gutxiago aipatzen dituztela (hamabi puntu gutxiago, zehazki).

2021. eta 2022. urteekin alderatuta, nabarmen igo dira enpleguarekin, etxebizitzarekin, arazo ekonomikoekin eta osasunarekin edo osasun-zerbitzuekin lotutako arazoan aipamenak, bai eta zerbitzu publikoen funtzionamenduaren eta laguntzen aipamenak ere. Politikarekin edo hezkuntzarekin lotutako arazoak ere gehiago aipatu dira 2023an, baina hazkundea ez da hain nabarmena izan.

Nabarmentzekoa da osasungintzarekin edo zerbitzu eta laguntza publikoen funtzionamendu eta estaldurarekin lotutako arazoak gehiago aipatu direla 2023an aurreko urteetan baino.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen iritziz, Euskadiko arazo nagusien bilakaera (%)



Inkestatutako pertsonak berez emandako erantzunei kodea ezarri zaie. Ehunekoak 100 baino gehiago dira, hiru erantzun eman zitezkeelako.

18 eta 29 urte bitarteko iritziz Euskadik dituen arazo nagusiak, kolektiboen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Lan merkatuari buruzko arazoak	63	58	68	64	62	58	60	68
Etxebizitza	36	37	35	33	37	35	36	35
Arazo ekonomikoak	34	35	33	27	37	31	34	37
Osasungintza, Osakidetza, Gizarte Segurantza, osasuna	30	27	34	29	31	35	32	26
Egoera politikoa, politikariak eta gatazka politikoa	17	18	17	17	18	16	19	15
Zerbitzu publikoen funtzionamendua eta hedadura, laguntzak	16	14	17	20	14	23	15	14
Delinkuentzia, segurtasun falta	14	11	18	12	15	9	16	13
Hezkuntza	10	9	11	9	10	17	11	6
Immigrazioa eta horrekin lotutako arazoak (arrazakeria, xenofobia...)	10	13	6	11	9	10	9	11
Azpiegiturak eta garraioak	9	8	9	10	8	18	7	7
Arazo eta desberdintasun sozialak	7	9	4	6	7	6	7	7
Ingurumena	6	7	5	5	6	4	6	8
Hizkuntza egoerarekin lotutako arazoak	6	5	6	7	6	3	6	7
Gazteen arazoak	5	6	5	5	5	2	8	3
Arazo demografikoak: jaiotza-tasa baxua, biztanleria zahartzea	4	5	4	6	4	3	4	5
Pentsioak	4	4	4	8	3	1	3	7
Balioen krisia, norberekeria, intolerantzia, errespetu falta...	3	5	0	4	3	1	2	6
Ustelkeria eta iruzurra	2	2	2	1	2	1	3	0
Emakume eta gizonen arteko desberdintasuna	2	1	3	1	2	3	1	2
Adinekoen arreta eta laguntza	1	0	3	1	1	1	1	2
Nazioarteko egoera: nazioarteko krisia, gerrak, etab.	1	1	0	0	1	0	1	1
Energia krisia, energia-mendekotasuna, energia-prezioak	1	0	1	0	1	0	1	0
Turismoa, turismoaren kudeaketa	0	1	0	1	0	0	0	1
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	637	548	352	833	285	513	387

Inkestatutako pertsonen berez emandako erantzunei kodea ezarri zaie. Ehunekoak 100 baino gehiago dira, hiru erantzun eman zitezkeelako.

Kolektibo guztietan arazo aipatuenak (gazteen % 50ek baino gehiagok aipatuta) lan-merkatuari lotutakoak dira. Dena den, ondoren, sexuaren, adinaren edo lurralde historikoaren arabera alde batzuk nabarmentzen dira.

Emakume gazteek gizon gazteek baino gehiago aipatzen dituzte lan-merkatuarekin, osasungintzarekin eta delinkuentzia eta segurtasunik ezarekin lotutako arazoak. Gizonak emakumeek baino neurri handiagoan adierazten dituzte immigrazioarekin eta gizarte-desberdintasunekin lotutako arazoak.

25 eta 29 urte bitarteko gazteek 18-24 urtekoek baino neurri handiagoan aipatzen dituzte arazo ekonomikoak, eta, aitzitik, gutxiago aipatzen dituzte zerbitzu publikoen eta laguntzen funtzionamendu-eta estaldura-arazoak.

Gipuzkoako gazteek aipatzen dituzte gehien lan-arazoak, bai eta arazo ekonomikoak ere; aitzitik, gutxien aipatzen dituzte osasungintza-arazoak. Arabako gazteek gainerakoek baino gehiago aipatzen dituzte zerbitzu publikoen funtzionamendua eta estaldura, hezkuntzarekin lotutako arazoak eta azpiegitura eta garraioekin lotutakoak. Bizkaiko gazteek gainerakoek baino gehixeago aipatzen dituzte (aldeak ez dira hain nabarmenak) egoera politikoa, delinkuentzia eta segurtasunik eza, eta, oro har, gazteen arazoak.

5.3. Euskadiren egoera ekonomikoaren balorazioa


ZURE USTEZ, NOLAKOA DA EGOERA EKONOMIKOA EUSKADIN: OSO ONA, ONA, TXARRA EDO OSO TXARRA?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Oso ona	11	6
Ona	70	68
Txarra	15	21
Oso txarra	2	2
Ed/Ee	1	2
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	790	5270

Gazteek positiboki baloratzen dute Euskadiren egoera ekonomikoa; hamar gaztetik zortzik uste dute ona edo oso ona dela.


Euskadiren egoera ekonomikoari buruz gazteek duten balorazioa 30 urte eta gehiagoko biztanleriarena baino positiboagoa da.

18 eta 29 urte arteko gazteek eta Euskadiko 30 urte eta gehiagoko biztanleek Euskadiren egoera ekonomikoari buruz egindako balorazioen arteko alderaketa (%)



Gazteek 2023an Euskadiren egoera ekonomikoari buruz emandako balorazioa serie osoaren positiboena da.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek Euskadiren egoera ekonomikoari buruz egindako balorazioaren bilakaera (%)



Gazteen kolektibo guztietan gehienek uste dute Euskadiko egoera ekonomikoa ona dela. Euskadiren egoera ekonomikoari dagokionez, gizon gazteek osatzen dute talderik baikorrena.

18 eta 29 urte bitartekoen iritziz Euskadik duen egoera ekonomikoaren balorazioa, kolektiboen arabera


%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso ona	14	14	8	9	12	12	11	12
Ona	68	70	70	73	69	72	70	69
Txarra	13	13	18	14	16	11	16	16
Oso txarra	4	3	2	1	3	3	2	3
Ed/Ee	1	0	2	2	1	1	1	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	790	425	365	244	546	190	342	258

5.4. Euskadiren egoera politikoaren balorazioa

ZURE USTEZ, NOLAKOA DA EGOERA POLITIKOA EUSKADIN: OSO ONA, ONA, TXARRA EDO OSO TXARRA?


%	18-29 urte	≥ 30 urte
Oso ona	3	3
Ona	63	63
Txarra	24	22
Oso txarra	3	6
Ed/Ee	7	6
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	790	5270

Euskadiko hiru gaztetik bik diote Euskadiren egoera politikoa ona edo oso ona dela (% 66). Kolektibo horren barne-osaera oso desberdina da; izan ere, % 63k uste du egoera politikoa ona dela, eta % 3k soilik uste du oso ona dela. Zifra horiek berdin-berdinak dira 30 urteko eta gehiagoko kolektiboan.



Euskadiren egoera politikoari buruz Euskadiko gazteek egiten duten balorazioa aurreko urtekoaren maila berean mantentzen da, eta 2019 eta 2021eko balorazio positiboen ehunekoetara iristea lortzen ez den arren, zifrak 2010etik 2018ra bitartean jasotakoak baino hobeak dira argi eta garbi.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek Euskadiren egoera politikoari buruz egindako balorazioaren bilakaera (%)



Euskadiren egoera politikoa ona edo oso ona dela uste dutenen kopuruak batu ondoren, kolektiboen arteko aldeak aztertuz gero, ikusiko dugu emakumeek gizon gazteek baino positiboago baloratzen dutela Euskadiren egoera politikoa. Lurralde historikoen arabera, baloraziorik onenak Bizkaiko gazteek emandakoak dira, eta txarrenak (hala ere, positiboak) Gipuzkoakoek emandakoak.

18 eta 29 urte bitarteko iritziz Euskadik duen egoera politikoaren balorazioa, kolektiboen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso ona	3	3	4	5	3	4	2	5
Ona	63	61	65	63	63	61	67	57
Txarra	24	25	22	20	25	17	24	26
Oso txarra	3	5	1	4	3	4	2	6
Ed/Ee	7	6	7	9	6	15	6	5
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	790	425	365	244	546	190	342	258

5.5. Euskadin dauden zerbitzu publikoei buruzko balorazio orokorra


GAUR GAURKOZ, NOLAKOAK USTE DUZU DIRELA ZERBITZU PUBLIKOAK EUSKADIN?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Oso onak	18	18
Nahikoa onak	59	54
Nahikoa txarrak	18	20
Oso txarrak	3	3
Ed/Ee	2	5
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	2635

Euskadiko zerbitzu publikoak onak direla diote lau gaztetik hiruk. Euskadin eskaintzen diren zerbitzu publikoak positiboki baloratzen dituen talde horren barruan, gehiago dira nahiko onak direla uste dutenak, oso onak direla uste dutenak baino.

Gazteek 30 urte eta gehiagoko biztanleek baino zertxobait hobeto baloratzen dituzte Euskadiko zerbitzu publikoak.

18 eta 29 urte arteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek Euskadin dauden zerbitzu publikoei buruz emandako balorazioen arteko alderaketa (%)



25 urtetik beherako gazteek 25 eta 29 urte bitartekoek baino balorazio hobea egiten dute Euskadin dauden zerbitzu publikoei buruz (% 84k eta % 73k, hurrenez hurren, oso onak edo nahiko onak direla uste dute).


Ez da iritzi-desberdintasunik ikusten gizon eta emakume gazteen artean, baina bai bizi diren lurralde historikoaren arabera. Arabako gazteak dira Euskadiko zerbitzu publikoak ondoen baloratzen dituztenak, eta Gipuzkoan bizi diren gazteak dira zerbitzu horiekiko kritikoenak.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek Euskadiko zerbitzu publikoei buruz duten iritzia, kolektiboan arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso onak	18	18	17	20	17	28	20	9
Nahikoa onak	59	59	58	64	56	55	60	59
Nahikoa txarrak	18	18	18	12	22	14	18	21
Oso txarrak	3	1	5	2	3	3	1	5
Ed/Ee	2	3	1	2	3	0	1	6
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	213	182	115	280	95	171	129

Gazteen artean Euskadiko zerbitzu publikoei buruzko balorazioa gehienbat positiboa bada ere, oso onak edo nahiko onak direla uste dutenen ehunekoak behera egin du aurreko urteekin alderatuta.

18 eta 29 urte arteko gazteek Euskadin dauden zerbitzu publikoei buruz emandako balorazioaren bilakaera (%)



5.6. Eusko Jaurlaritzaren zenbait arlotako jardueraren balorazioa

ETA ZEHATZAGO, ZURE IRITZIZ, NOLAKO DA ONDOKO GAJETAN AZKEN URTEOTAN EUSKO JAURLARITZA EGITEN ARI DEN LANA: ONA, HALA-HOLAKO ADO TXARRA?

%		18-29 urte	≥ 30 urte
Turismoa	Ona	72	72
	Hala-holakoa	17	16
	Txarra	9	9
	Ed/Ee	3	4
Kultura	Ona	64	64
	Hala-holakoa	26	25
	Txarra	8	8
	Ed/Ee	2	3
Bakea eta bizikidetzatza	Ona	58	52
	Hala-holakoa	27	31
	Txarra	11	13
	Ed/Ee	4	5
Ingurumena	Ona	54	48
	Hala-holakoa	30	35
	Txarra	14	14
	Ed/Ee	2	4
Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna	Ona	54	48
	Hala-holakoa	37	34
	Txarra	8	16
	Ed/Ee	2	3
Euskara	Ona	53	54
	Hala-holakoa	31	27
	Txarra	11	14
	Ed/Ee	5	6
Ekonomia	Ona	52	43
	Hala-holakoa	34	38
	Txarra	13	17
	Ed/Ee	2	3
Hezkuntza	Ona	50	41
	Hala-holakoa	28	35
	Txarra	20	21
	Ed/Ee	2	3
%		18-29 urte	≥ 30 urte

Herritarren segurtasuna	Ona	49	43
	Hala-holakoa	32	34
	Txarra	18	22
	Ed/Ee	1	1
Obra publikoak eta azpiegiturak	Ona	49	45
	Hala-holakoa	33	35
	Txarra	15	17
	Ed/Ee	3	4
Gizarte ongizatea	Ona	48	46
	Hala-holakoa	36	37
	Txarra	13	15
	Ed/Ee	2	2
Osasungintza	Ona	42	31
	Hala-holakoa	31	33
	Txarra	27	36
	Ed/Ee	0	1
Enplegua	Ona	37	28
	Hala-holakoa	43	46
	Txarra	19	23
	Ed/Ee	2	3
Justizia	Ona	35	26
	Hala-holakoa	39	35
	Txarra	21	29
	Ed/Ee	6	9
Etxebizitza	Ona	23	19
	Hala-holakoa	31	36
	Txarra	44	41
	Ed/Ee	2	3
Ehuneko bertikalak		100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)		395	2635

Eusko Jaurlaritzak azken urteetan hainbat arlotan izan duen jarduera baloratzeko orduan, gazteek uste dute jarduerarik onena turismoan egin dela, eta okerrena etxebizitza-arloan.


Jarduera ona izan dela uste dutenen ehunekoak % 50etik gorakoak dira arlo hauetan: turismoa, kultura, bakea eta bizikidetzak, ingurumena, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, euskara, ekonomia eta hezkuntza. Aitzitik, honako arlo hauetan ez dira % 50era iristen: herritarren segurtasuna, herri-lanak eta azpiegiturak, gizarte-ongizatea, osasungintza, enplegua, justizia eta etxebizitza.

Oro har, gazteek 30 urte eta gehiagokoek baino balorazio positiboagoa egiten dute Eusko Jaurlaritzak aztertutako arloetan izan duen jardunari buruz. Bi kolektiboek emandako balorazioen arteko aldeak bost

puntutik gorakoak dira eremu hauetan: bakea eta bizikidetzeta, ingurumena, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, ekonomia, hezkuntza, herritarren segurtasuna, osasuna, enplegua eta justizia.

Nolanahi ere, bi kolektiboak bat datoz turismoaren, kulturaren eta bakea eta bizikidetzaren arloei balorazio onenak ematerakoan, eta txarrenak enpleguaren, justiziaren eta etxebizitzaren arloei.


Eusko Jaurlaritzak hainbat arlotan egindako jarduera ontzat eman duten 18 eta 29 urte arteko gazteen eta 30 urte eta gehiagoko biztanleen ehunekoaren alderaketa (%)



2023an Eusko Jaurlaritzaren jarduera ona dela uste duten gazteen ehunekoak gora egin du 2021eko eta 2022ko datuekin konparatuz gero, ondoko arloei dagokienez: bakea eta bizikidetzeta, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, euskara, ekonomia, hezkuntza, enplegua, justizia eta etxebizitza. Hazkunderik handiena ekonomiaren arloko jarduerari dagokio.

Aitzitik, jaurlaritzaren jarduera ona izan dela uste duten gazteen ehunekoak behera egin du osasunaren arloan. Turismoaren, kulturaren, herritarren segurtasunaren, herri-lanen eta gizarte-ongizatearen arloei dagokienez, jaitsiera egon da 2022tik 2023ra, baina ehunekoak 2021ean erregistratutakoen gainetik daude.

Eusko Jaurlaritzak hainbat arlotan egindako jarduerak ontzat eman duten 18 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Gizon gazteek emakume gazteek baino hobeto baloratzen dute Eusko Jaurlaritzaren jarduna honako arlo hauetan: enplegua (alde ehuneko 22 puntukoa da), ekonomia (20 puntuko alde), etxebizitza (17 puntu), osasuna (16 puntu), gizarte-ongizatea (15 puntu), emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna (9 puntu), herri-lanak eta azpiegiturak (9 puntu), bakea eta bizikidetzak (8 puntu), hezkuntza (7 puntu) eta euskara (6 puntu).

Eusko Jaurlaritzaren jarduna "ona" izan dela uste dutenen artean bost puntu baino gehiagoko aldeak daudela kontuan hartuta berriro ere, baina kasu honetan adinaren arabera, ikusten dugu 25 eta 29 urte bitartekoek 18 eta 24 urte artekoek baino balorazio positiboagoa ematen diete ingurumenaren eta euskararen arloetan egindako jardueri. Aitzitik, 25 urtetik beherakoek 25-29 urtekoek baino balorazio positiboagoak egiten dituzte ekonomiari, herri-lanei, gizarte-ongizateari, osasunari, enpleguari eta etxebizitzari dagokienez.

Lurralde historikoaren arabera ere aldeak daude. Araban bizi diren gazteek besteek baino hobeto baloratzen dute Eusko Jaurlaritzaren jardura kulturaren, ingurumenaren, herri-lanen eta gizarte-ongizatearen arloan; aitzitik, haiak ematen diete balorazio positibo gutxien hezkuntzan egindakoari. Bizkaiko gazteek gainerakoek baino balorazio positiboagoak eman dizkiete Eusko Jaurlaritzak turismoaren, bakea eta bizikidetzaren, ekonomiaren eta osasunaren arloetan izan duen jardueri. Bestalde, Gipuzkoako gazteak dira ondoen baloratzen dutenak Eusko Jaurlaritzak herritarren segurtasunari eta enpleguari dagokienez egindako lana, baina kritikoak dira turismoaren, ingurumenaren, herri-lanen, gizarte-ongizatearen eta, bereziki, etxebizitzaren arloan egindakoarekin.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen Eusko Jaurlaritzaren zenbait arlotako jardueraren balorazioa, kolektiboan arabera

	%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
			Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Turismoa	Ona	72	71	73	71	72	70	78	61
	Hala-holakoa	17	17	16	14	18	27	11	22
	Txarra	9	10	8	9	9	2	6	17
	Ed/Ee	3	1	4	6	0	1	4	0
Kultura	Ona	64	65	62	63	64	71	63	63
	Hala-holakoa	26	26	25	25	26	22	27	26
	Txarra	8	8	9	7	9	8	7	10
	Ed/Ee	2	1	4	5	1	0	4	1
Bakea eta bizikidetzak	Ona	58	62	54	61	57	53	61	56
	Hala-holakoa	27	24	31	23	29	35	24	29
	Txarra	11	11	11	12	11	8	11	12
	Ed/Ee	4	3	5	5	3	4	5	2
Ingurumena	Ona	54	55	52	50	56	75	52	49
	Hala-holakoa	30	26	35	36	27	18	33	30
	Txarra	14	16	11	11	16	7	12	19
	Ed/Ee	2	3	2	5	1	1	3	2

	%	GUZTIRA							
		Sexua		Adina		Lurralde historikoak			
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna	Ona	54	58	49	55	53	56	53	55
	Hala-holakoa	37	33	42	32	39	31	40	34
	Txarra	8	8	7	11	6	13	5	11
	Ed/Ee	2	1	2	2	1	0	3	0
Euskara	Ona	53	56	50	43	59	54	52	55
	Hala-holakoa	31	26	38	38	28	34	29	34
	Txarra	11	11	12	14	10	10	12	10
	Ed/Ee	5	7	1	5	4	2	7	1
Ekonomia	Ona	52	60	40	57	48	46	56	46
	Hala-holakoa	34	29	40	29	37	39	29	40
	Txarra	13	11	16	9	15	15	12	13
	Ed/Ee	2	0	4	5	0	0	3	0
Hezkuntza	Ona	50	53	46	52	49	38	52	52
	Hala-holakoa	28	27	29	27	28	41	25	27
	Txarra	20	20	20	17	22	18	20	21
	Ed/Ee	2	0	4	4	1	2	3	0
Herritarren segurtasuna	Ona	49	47	51	51	48	48	47	53
	Hala-holakoa	32	33	31	36	30	36	34	28
	Txarra	18	19	16	12	22	16	18	19
	Ed/Ee	1	0	2	2	0	0	2	0
Obra publikoak eta azpiegiturak	Ona	49	53	44	59	43	55	52	42
	Hala-holakoa	33	30	37	20	40	27	31	39
	Txarra	15	16	14	15	16	16	14	17
	Ed/Ee	3	1	6	7	1	2	3	2
Gizarte ongizatea	Ona	48	55	40	53	45	58	48	44
	Hala-holakoa	36	29	46	31	39	24	37	41
	Txarra	13	15	11	10	16	18	13	13
	Ed/Ee	2	2	3	6	0	0	3	2
Osasungintza	Ona	42	49	33	58	34	36	47	37
	Hala-holakoa	31	27	36	28	33	38	31	27
	Txarra	27	24	32	15	34	26	22	36
	Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0

	%	GUZTIRA							
		Sexua		Adina		Lurralde historikoak			
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
Enplegua	Ona	37	46	24	40	35	34	35	41
	Hala-holakoa	43	36	52	44	42	48	41	44
	Txarra	19	18	20	13	22	17	21	16
	Ed/Ee	2	0	4	4	1	2	3	0
Justizia	Ona	35	36	34	36	34	30	35	36
	Hala-holakoa	39	33	47	35	41	46	37	39
	Txarra	21	23	18	24	20	18	20	23
	Ed/Ee	6	8	2	6	5	6	7	2
Etxebizitza	Ona	23	30	13	37	15	25	25	17
	Hala-holakoa	31	30	32	29	32	40	31	26
	Txarra	44	40	50	30	52	35	40	56
	Ed/Ee	2	0	5	4	1	0	3	2
Ehuneko bertikalak		100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)		395	213	182	115	280	95	171	129


5.7. Euskadiren etorkizunarekiko baikortasun-maila

EUSKADIREN ETORKIZUNARI BURUZ OSO OPTIMISTA, NAHIKOA OPTIMISTA, NAHIKOA PESIMISTA EDO OSO PESIMISTA ZARELA ESANGO ZENUKE?

%	18-29 urte		≥ 30 urte	
Oso optimista	14		15	
Nahikoa optimista	57		57	
Nahikoa pesimista	22		20	
Oso pesimista	5		5	
Ed/Ee	2		4	
Ehuneko bertikalak	100		100	
n (absolutuak, haztatu gabe)	395		2635	

Gazte gehienak baikorrak dira Euskadiren etorkizunari dagokionez. Eta ez da alde esanguratsurik ikusten 30 urte eta gehiagoko biztanleen iritziekin konparatuz gero.

18 eta 29 urte arteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek Euskadiren etorkizunari buruz duten iritzien arteko alderaketa (%)



Euskadiko etorkizunarekiko oso baikor edo nahiko baikor dauden ehuneko batura handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino (% 76 eta % 67, hurrenez hurren).

Arabako gazteak dira baikorrenak (% 75) eta Gipuzkoakoak optimismo baxuena adierazten dutenak (% 67).

18 eta 29 urte bitarteko gazteen Euskadiren etorkizunarekiko baikortasun-maila, kolektiboen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso optimista	14	11	18	16	13	21	14	12
Nahikoa optimista	57	56	58	57	57	54	59	55
Nahikoa pesimista	22	26	16	21	23	23	20	25
Oso pesimista	5	4	6	6	4	1	4	8
Ed/Ee	2	3	1	0	4	1	3	2
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	212	183	108	287	95	171	129

6.ESPAINIAREN EGOERAREN BALORAZIOA

6.1. Espainiaren egoeraren balorazioa 0-10 arteko eskalan

0-10 PUNTU BITARTEKO ESKALA BAT ERABILIZ, 0-AK OSO GAIZKI ESAN NAHI DU, ETA 10-AK OSO ONDO ESAN NAHI DU. ZURE USTEZ, NOLA DOAZ GAUZAK AURRERA ESPAINIAN?


0-10 BATEZBESTEKOA	18-29 urte	≥ 30 urte
Espainiaren egoerari emandako puntuazioa	4,8	4,7
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	2635

Gazteek 10etik 4,8ko puntuazioa ematen diote Espainiaren egoerari. Puntuazio hori Euskadiren egoerari emandakoa (6,1) baino dezente baxuagoa da.

Ez dago alderik gainerako biztanleekiko.

Euskadiko gazteek Espainiaren egoerari emandako puntuazioa 2021ean eta 2022an emandakoaren antzekoa da. Gazteek 2019an eta 2020an soilik eman zioten 5etik gorako puntuazioa Espainiaren egoerari; beraz, 2010ean hasitako serie osoari erreparatuz gero, 2023an lortutako puntuazioa batez bestekoaren gainetik egongo litzateke.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek Espainiaren egoera orokorrari buruz egiten duten balorazioaren bilakaera (0-10 arteko batez bestekoa)



Kolektiboen araberako analisiak erakusten du emakumeek bakarrik eman dizkiotela 5 puntu Espainaren egoerari.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen Espainiaren egoeraren balorazioa, kolektiboen arabera

0-10 BATEZBESTEKOA	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Espainiaren egoerari emandako puntuazioa	4,8	4,7	5,0	4,8	4,9	4,7	4,8	4,9
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	212	183	108	287	95	171	129

6.2. Espainiak duen egoera ekonomikoaren balorazioa


ETA ESPAINIAKO EGOERA EKONOMIKOA?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Oso ona	2	1
Ona	36	32
Txarra	46	47
Oso txarra	14	14
Ed/Ee	2	6
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	790	5270

Gazteen herenak baino gehixeagok uste du Espainiaren egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela (% 38). Deigarria da gazteek Espainiaren eta Euskadiren egoera ekonomikoei buruz ematen duten balorazioen arteko aldea (gazteen % 82k uste du Euskadirena ona edo oso ona dela).


Gazteek Espainiaren egoera ekonomikoari buruz egiten duten balorazioa gehienbat negatiboa bada ere, 30 urte eta gehiagoko biztanleek egindakoa baino zertxobait hobea da.

18 eta 29 urte arteko gazteek eta Euskadiko 30 urte eta gehiagoko biztanleek Espainiaren egoera ekonomikoari buruz egindako balorazioen arteko alderaketa (%)



EAEko gazteek Espainiaren egoera ekonomikoari buruz emandako puntuazioa nabarmen hobetu da azken urteetan, eta 2023an 2009ko krisiaz geroztik baloraziorik onenak lortu dira.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek Espainiaren egoera ekonomikoari buruz egindako balorazioaren bilakaera (%)



Espainiaren egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela uste dutenen ehuneko baturari erreparaturaz gero, ikusten dugu emakumeak eta 25 urtetik beherakoak direla baloraziorik onenak ematen dituztenak, nahiz eta ez diren gehiengo izatera iristen. Araban eta Bizkaian bizi diren gazteek hobeto baloratzen dute Espainiaren egoera ekonomikoa Gipuzkoakoek baino.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek Espainiaren egoera ekonomikoari emandako balorazioa, kolektiboan arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso ona	2	1	3	2	2	0	3	2
Ona	36	34	37	42	32	42	38	28
Txarra	46	47	46	43	48	38	45	53
Oso txarra	14	17	12	11	16	19	12	17
Ed/Ee	2	1	2	1	2	2	2	1
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	790	425	365	244	546	190	342	258


6.3. Espainiaren egoera politikoaren balorazioa

ETA ESPAINIAREN EGOERA POLITIKOA NOLA BALORATZEN DUZU?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Oso ona	2	1
Ona	28	25
Txarra	41	41
Oso txarra	27	28
Ed/Ee	3	5
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	790	5270


Euskadiko gazteen iritziz, Espainiaren egoera politikoak Euskadirena baino okerragoa da, eta % 30ek bakarrik ematen diote balorazio positiboa (Euskadiren egoera politikoaren kasuan, aldiz, % 66k). Espainiaren egoera politikoak egoera ekonomikoarekin alderatuz gero, egoera politikoak okerrago baloratzen dela ere egiaztatzen da. Nolanahi ere, gazteek 30 urte eta gehiagoko biztanleek baino kalifikazio apur bat hobea ematen diote Espainiaren egoera politikoari.

18 eta 29 urte arteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek Espainiaren egoera politikoari buruz egindako balorazioen arteko alderaketa (%)



Euskadiko gazte gehienek Espainiako egoera politikoari buruz ematen dituzten balorazioak negatiboak badira ere, hobera egin dute aurreko urteekin alderatuta, eta Espainian egoera politikoak ona edo oso ona dela uste dutenak ehuneko handienera iritsi dira 2010ean hasitako seriean.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek Espainiaren egoera politikoari buruz egindako balorazioaren bilakaera (%)



Emakumeek gizonek baino hobeto baloratzen dute Espainiako egoera politikoa, nahiz eta haien artean ere pertzepzio orokorra negatiboa izan. Bestalde, Gipuzkoan bizi diren gazteak dira Espainiako egoera politikoarekiko kritikoena.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen Espainiaren egoera politikoaren balorazioa, kolektiboen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso ona	2	2	1	1	2	0	3	0
Ona	28	25	33	29	28	34	30	23
Txarra	41	40	42	42	40	39	40	42
Oso txarra	27	32	21	24	29	23	24	33
Ed/Ee	3	2	3	4	2	3	3	2
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	790	425	365	244	546	190	342	258

7. JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK


7.1. Politikarekiko interesa

ORO HAR, NOLAKO INTERESA DUZU POLITIKAZ?


%	18-29 urte	≥ 30 urte
Interes handia	12	11
Nahikoa interes	24	27
Interes gutxi	41	36
Batere interesik ez	23	25
Ed/Ee	0	1
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	7905

Euskadiko hiru gaztetik batek dio politikan interesa duela (% 36). Ehuneko hori 30 urte eta gehiagoko biztanleriarena (% 38) baino pixka bat txikiagoa da.

18 eta 29 urte arteko gazteek eta Euskadiko 30 urte eta gehiagoko biztanleek politikarekiko duten interesaren arteko alderaketa (%)



Euskadiko gazteen politikarekiko interesa dezente hazi zen 2021ean, eta 2022an eta 2023an pixka bat jaitsi den arren, 2020aren aurreko balioen gainetik jarraitzen du.



Gizon gazteek emakume gazteek baino interes handiagoa dute politikan (% 40k eta % 32k, hurrenez hurren, interes handia edo nahikoa dutela diote).

Gipuzkoako gazteak dira politikan interes handiena dutenak (% 42 oso edo nahiko interesatuta daude, eta Arabako eta Bizkaiko gazteen artean, berriz, % 33).

18 eta 29 urte bitarteko gazteen politikarekiko interesa, kolektiboan arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Interes handia	12	17	7	12	12	9	11	15
Nahikoa interes	24	23	25	26	23	24	22	27
Interes gutxi	41	38	44	41	40	46	40	39
Batere interesik ez	23	22	25	21	25	21	27	19
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	637	548	352	833	285	513	387


7.2. Ezker-eskuin eskalan kokatzea

POLITIKAZ HITZ EGITEN DENEAN NORMALKI EZKERRAZ ETA ESKUINAZ HITZ EGITEN DA. ZU ZEIN TOKITAN KOKATUKO ZINATEKE, 0-TIK 10-ERA KO ESKALAN? 0-AK EZKER MUTURRA ESAN NAHI DU, 10-AK ESKUIN MUTURRA, ETA, BERAZ, 5-AK ZENTROA?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
0 (Ezker muturra)	8	6
1	4	2
2	11	6
3	16	13
4	12	13
5	27	40
6	6	5
7	5	5
8	3	2
9	1	0
10 (Eskuin muturra)	3	1
Ed/Ee	6	8
Ehuneko bertikalak	100	100
0-10 batezbestekoa	4,1	4,3
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	7905

Ezker-eskuin eskalan, 0tik 10era bitarteko balioetan neurtuta (0a ezker muturra izango litzateke eta 10a eskuin muturra), gazteria 4,1ean kokatzen du bere burua, hau da, zentro-ekzker deituko genukeen horretan. Izan ere, gazteen erdiak (% 51) eskalako 0 eta 4 artean kokatu dira.


Gazteen eta 30 urte eta gehiagoko biztanleen batez bestekoak antzekoak badira ere (4,1 eta 4,3, hurrenez hurren), gazteak gehiago kokatu dira 0tik 4ra bitartean, eta 30 urte eta gehiagoko biztanleriak eskalaren erdiko puntuan kokatzeko joera handiagoa izan du (5).



Gazteek apur bat ezkererantz egin dute seriearen neurketa guztietan, 2016ko 3,7tik 2018ko 4,2ra bitarteko batez bestekoekin. 2023ko puntuazioa, beraz, ohiko balioetan kokatzen da.

30 urte eta gehiagoko biztanleriarekiko alderaketak erakusten du gazteak beti kokatzen direla nagusiagoak baino apur bat ezkerrerago.

18-29 urteko gazteek eta Euskadiko 30 urteko edo gehiagoko biztanleek ezker-eskuin eskalan duten posizionamenduaren bilakaera (0-10 arteko batez bestekoa)



* Ez dugu 30 urtetik gorako biztanleriari zegokion 2011ko datua

Gipuzkoan bizi direnak eta emakumeak gainerakoak baino apur bat ezkerrerago kokatzen dira, 4tik beherako batez bestekoekin. Nabarmentzekoa da beren burua ezker muturrekotzat jotzen duten Gipuzkoako gazteen % 17 (0-10 eskalan 0 edo 1eko puntuazioekin).

Bestalde, 25 urtetik beherakoen ehunekoak zertxobait handiagoak dira ezkerreko posizioetan, baina baita eskuinekoetan ere, eta gainerakoek baino joera txikiagoa dute zentroan kokatzeko. Nolanahi ere, batez bestekoa 25-29 urteko gazteenaren antzekoa da.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen ezker-eskuin eskalan kokapena, kolektiboen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Ezker muturra (0-1)	12	11	12	13	11	9	9	17
Ezkerra (2-3)	27	26	29	30	25	28	28	25
Zentro-ezkerra (4)	12	12	12	15	10	11	14	9
Zentroa (5)	26	25	28	20	30	27	25	29
Zentro-eskuma (6)	6	7	5	6	6	10	5	6
Eskuma (7-8)	8	10	5	10	6	8	9	7
Eskuin muturra (9-10)	4	4	4	3	4	5	3	3
Ed/Ee	6	6	6	4	7	4	7	4
0-10 batezbestekoa	4,1	4,2	3,9	4,0	4,1	4,3	4,1	3,8
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	637	548	352	833	285	513	387


7.3. Euskal nazionalismo edo abertzaletasunaren eskalan kokatzea

BESTALDE, EUSKAL NAZIONALISTA EDO ABERTZALE SENTIMENDUARI DAGOKIONEZ, ESANGO ZENIDAKE, MESEDEZ, NON KOKATUKO ZINATEKEEN 0-TIK 10-ERAKO ESKALAN, KONTUAN HARTUTA 0-A DELA BATERE NAZIONALISTA EDO ABERTZALEA EZ ETA 10-A OSO NAZIONALISTA EDO ABERTZALEA?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
0 (Bateren nazionalista edo abertzalea ez)	12	17
1	2	2
2	3	3
3	7	4
4	4	5
5	24	22
6	11	8
7	13	10
8	10	10
9	4	4
10 (Oso nazionalista edo abertzalea)	4	9
Ed/Ee	5	7
Ehuneko bertikalak	100	100
0-10 batezbestekoa	5,1	5,1
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	7905


Nazionalismoaren eskalan, gazteak eta 30 urtetik gorakoak antzera kokatzen dira, eta bi kolektiboek 5,1eko batez bestekoa dute.

18 eta 29 urte arteko gazteen eta Euskadiko 30 urte eta gehiagoko biztanleek euskal nazionalismoaren eskalan duten posizionamenduaren alderaketa (%)



Nazionalismoaren eskalako posizionamendua oso egonkorra izan da serie osoan zehar; urte hauetan 5,4 izan da puntuaziorik handiena eta 4,9 txikiena.

18 eta 29 urte arteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek euskal nazionalismoaren eskalan duten posizionamenduaren bilakaera (0-10 arteko batez bestekoa)



* 2011n ez zeuden 30 urte edo gehiagokoek daturik

25 urtetik beherakoek pixka bat abertzaleagotzat jotzen dute beren burua 25 eta 29 urte bitartekoek baino; nazionalismoa neurtzeko 0 eta 10 arteko eskala erabiliz, batez besteko puntuazioak 5,4 eta 5,0 dira, hurrenez hurren, eta 6 eta 10 arteko balioetan ehuneko 10 puntu gehiago dituzte gazteek.

Gipuzkoako gazteak dira abertzaleenak sentitzen direnak; beraien artean batez besteko puntuazioa 5,6 dira, eta Arabako eta Bizkaiko gazteen artean, berriz, 4,9. Izan ere, Gipuzkoako gazteen % 52 nazionalismoaren eskalan 6tik 10era bitartean kokatzen dira, eta Arabako eta Bizkaiko gazteen artean, berriz, % 39 eta % 38, hurrenez hurren.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek euskal nazionalismoaren eskalan duten kokapena, kolektiboen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Gizonak	Emakumeak	18-24
Ez nazionalista (0-1)	14	14	13	11	16	16	15	10
Ez oso nazionalista (2-4)	14	15	14	16	13	18	15	11
Pixka bat nazionalista (5)	24	23	26	20	27	23	25	23
Nahikoa nazionalista (6-8)	34	35	34	40	31	30	31	41
Oso nazionalista (9-10)	9	9	8	9	8	9	7	11
Ed/Ee	5	4	5	4	5	3	5	4
0-10 batezbestekoa	5,1	5,2	5,0	5,4	5,0	4,9	4,9	5,6
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	637	548	352	833	285	513	387

7.4. Euskal Herriaren independentziarekiko jarrera


EUSKAL HERRIAREN INDEPENDENTZIARI DAGOKIONEZ ZU ZEU...

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Ados zaude	28	22
Egoeraren arabera ados edo kontra egongo zinateke	37	30
Kontra zaude	30	42
Ed/Ee	5	7
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	7905

Ez dago gazte gehienak biltzen dituen Euskal Herriaren independentziarekiko jarrerarik. Talderik ugariena, gazteen % 37 biltzen duena, egoeraren arabera independentziarekin ados ala kontra egongo liratekeen gazteen taldea da. Alde (% 28) eta kontra (% 30) dauden ehunekoak antzekoak da.


Gazteak 30 urte eta gehiagoko biztanleak baino gehiago dira independentziaren aldekoak. 29 urtetik gorakoen artean, % 42 independentziaren aurka daude, eta ehuneko hori % 30era jaisten da gazteen artean.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek eta 30 urte edo gehiagoko biztanleek independentziarekiko duten posizionamenduaren alderaketa (%)



Nolanahi ere, Euskal Herriaren independentziaren kontra dauden gazteen ehunekorik handiena jaso da 2023an.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek Euskal Herriaren independentziarekiko duten posizionamenduaren bilakaera (%)



Emakumeen artean eta Gipuzkoan bizi diren gazteen artean, gainerakoetan ez bezala, independentziarekin ados egongo liratekeen ehunekoa desadostasunean leudekeenena baino pixka bat handiagoa da.

18 eta 29 urte bitartekoen kokapena Euskal Herriaren independentziaren inguruan, kolektiboan arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Ados zaude	28	27	29	26	29	21	28	30
Egoeraren arabera ados edo kontra egongo zinateke	37	36	40	41	35	39	37	38
Kontra zaude	30	32	27	29	31	37	30	27
Ed/Ee	5	6	4	4	5	3	5	5
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	637	548	352	833	285	513	387

7.5. Alderdi politikoren batekiko hurbiltasuna


ALDERDI POLITKOREN BATETIK HURBIL SENTITZEN ZARA?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Oso hurbil	6	7
Nahikoa hurbil	10	15
Apur bat hurbil	17	17
Ez oso hurbil	21	19
Batere hurbil ez	47	42
Ed/Ee	0	1
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	2635


Gazteen % 16 soilik sentitzen da alderdi politikoren batetik oso edo nahiko hurbil. Talde horri apur bat hurbil sentitzen diren gazteen taldea gehitzen badiogu, ikusten dugu hirutik bat (% 33), neurri batean, alderdi politikoren batetik hurbil sentitzen dela.

Aitzitik, alderdiekiko inolako hurbiltasunik sentitzen ez dutenen ehunekoa handiagoa da gazteen artean 30 urte eta gehiagokoen artean baino.

18 eta 29 urte arteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko Euskadiko biztanleek alderdi politikoekiko duten hurbiltasun-mailaren alderaketa (%)



2023an, alderdi politikoren batetik oso edo nahiko hurbil sentitzen diren gazteen ehunekoa, txikia bada ere, seriearen handiena da.



18 eta 24 urte bitarteko gazteek 25-29 urtekoek baino ehuneko apur bat handiagoak dituzte alderdi politiko batekiko oso hurbil edo nahiko hurbil sentitzen direnak batzen direnean: % 19 eta % 14 dira, hurrenez hurren.

Alderdi politikoren batekiko hurbiltasuna 18 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, kolektiboen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso hurbil	6	6	5	7	5	8	7	2
Nahikoa hurbil	10	11	9	12	9	7	6	18
Apur bat hurbil	17	11	24	16	17	13	18	17
Ez oso hurbil	21	20	21	21	20	25	19	22
Batere hurbil ez	47	52	41	45	48	47	51	41
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	212	183	108	287	95	171	129

7.6. Eusko Legebiltzarrean ordezkapena duten alderdi politikoekiko begikotasuna

ZENBATEKO SINPATIA SORTZEN DIZU AIPATUKO DIZKIZUDAN ALDERDIETAKO BAKOITZAK? MESEDEZ, ERABILI EZAZU OTIK 10-ERAKO ESKALA, 0-AK ESAN NAHI DUELARIK INOLAKO SINPATIARIK EZ ETA 10-AK SINPATIA HANDIA?


0-10 BATEZBESTEKOA	18-29 urte	≥ 30 urte
EH BILDU	4,9	4,1
EAJ-PNV	4,5	5,3
PSE-EE	4,2	4,5
ELKARREKIN PODEMOS	4,1	3,6
PP	2,1	1,9
VOX	1,1	0,7
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	7905

Euskadiko gazteriari sinpatia gehien sortarazten dion alderdi politikoa EH Bildu da. Hala ere, alderdi hori ere ez da 5 puntura iristen Otik 10era doan balorazio-eskalan.

EH Bilduren atzetik (4,9 puntu jaso ditu), EAJ (4,5 punturekin), PSE-EE (4,2) eta Elkarrekin Podemos (4,1) daude. PP (2,1) eta Vox (1,1) dira gazteen artean begikotasun gutxien sortzen duten alderdiak.

EH Bilduk sinpatia handiagoa sortzen du gazteen artean 30 urte eta gehiagoko biztanleen artean baino (azken talde horretan hirugarren postuan dago). Elkarrekin Podemos ere erakargarriagoa da gazteentzat 30 urte eta gehiagoko biztanleentzat baino. Aitzitik, 30 urtetik gorako biztanleek gazteek baino begikoago dituzte EAJ eta PSE-EE. PP eta Vox sailkapeneko azken postuetan daude bi adin-taldeetan. Nolanahi ere, gazteek eta 30 urtetik gorakoek ematen dituzten puntuazioen arteko alderik nabarmenenak EH Bilduri eta EAJri eragiten dietenak dira (8 hamarren bi kasuetan, baina kontrako noranzkoan).


18 eta 29 urte arteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek Eusko Legebiltzarrean ordezkariak izan daitezkeen alderdi politikoekiko duten begikotasunaren alderaketa (0-10 arteko batez bestekoa)



EH Bilduri emandako puntuazioak hobetuz joan dira urteetan zehar, eta 2023an 2022ko puntuazioa errepikatu du, serieko altuena.

EAJk ez du lortu 2021eko puntuazioa, baina nahiko egonkor mantendu da azken urteetan. PSE-EEk, berriz, puntuazioak hobetu ditu 2021etik aurrera, eta maila berean jarraitzen du ordutik, PPK izandakoaren antzera. Elkarrekin-Podemosek, jaitsiera handirik izan gabe, orain arteko puntuaziorik txarrena lortu du. Eta Vox da, aztertutako hiru urteetan, Euskadiko gazteek gutxien baloratzen duten alderdi politikoa.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek Eusko Legebiltzarrean ordezkari izan dauden alderdi politikoekiko duten begikotasunaren bilakaera (0-10 arteko batez bestekoa)



Emakume gazteek gizonen baino puntuazio altuagoak eman dizkiete alderdi politiko guztiei, Voxi izan ezik, horrek gizonen artean puntuazio altuagoa lortu baitu. Emakumeen eta gizonen arteko puntuazio-alderik handienak Elkarrekin Podemosi (puntu bateko aldea) eta PSE-EEri (0,8 puntu) dagozkie.

25 urtetik beherako gazteek 25 eta 29 urte bitartekoek baino puntuazio altuagoa eman diete alderdi guztiei. Eta kasu honetan alderik handienak EH Bilduren kasuan (0,7 puntuko aldea) eta PSE-EEren kasuan (0,6 puntu) jaso dira.

Nolanahi ere, emakume, gizon eta adin guztietako gazteak bat datoz EH Bilduri puntuaziorik altuenak ematerakoan.

Hiru lurralde historikoetako gazteen artean baloraziorik onena jaso duen alderdia EH Bildu da, baina Gipuzkoan lortu du puntuaziorik onena. EAJk balorazio hobea jaso du Bizkaian, eta gauza bera gertatzen zaie PSE-EEri eta Elkarrekin Podemosi, nahiz eta azken bi alderdi horiek ez duten alde handirik lurraldeen arabera. Azkenik, PPK eta Voxek Araban lortu dituzte kalifikazio onenak eta Gipuzkoan txarrenak.

Eusko Legebiltzarrean ordezkartza duten alderdi politikoezko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen begikotasuna, kolektiboen arabera

0-10 BATEZBESTEKOA	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
EH BILDU	4,9	4,6	5,1	5,3	4,6	4,5	4,8	5,0
EAJ-PNV	4,5	4,4	4,7	4,7	4,4	4,4	4,7	4,2
PSE-EE	4,2	3,9	4,7	4,6	4,0	4,2	4,3	4,1
ELKARREKIN PODEMOS	4,1	3,7	4,7	4,4	4,0	3,9	4,2	4,1
PP	2,1	2,0	2,2	2,2	2,0	2,4	2,2	1,8
VOX	1,1	1,3	0,9	1,1	1,1	1,3	1,2	0,9
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	637	548	352	833	285	513	387

7.7. Botoa emateko ohitura


ZUK HAUTESKUNDE GUZTIETAN EMATEN DUZU BOTOA?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Bai, hauteskunde guztietan ematen duzu botoa	38	62
Batzuetan bai, beste batzuetan ez	19	22
Ez duzu inoiz botoa ematen	15	11
Lehenengo aldiz eman zenezake botoa (18 urte edo nazionalitatea lortu berria)	17	1
Ez duzu botoa emateko eskubiderik (atzerritarra)	11	4
Ed/Ee	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	7905

Gazteen % 57k botoa emateko eskubidea erabili du; % 38k botoa eman du 18 urte bete zituenetik egindako hauteskunde guztietan, eta beste % 19k botoa eman du hauteskunde batean edo batzuetan, baina ez ahal zuen guztietan. Gainerako % 43a honela banatzen da: % 15ek ez du inoiz bozkatu, nahiz eta aukera izan, eta % 28k oraindik ez du botoa emateko aukerarik izan, 18 urte bete ez dituelako edo Espainiako nazionalitatea ez duelako.

30 urteko eta gehiagoko biztanleriarekin alderatuta, gazteek bozkatzeko ohitura txikiagoa dute, baina adinagatik edo botoa emateko eskubideagatik baldintzatuta.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen bozkatzeko ohituraren bilakaera (%)



Botoa beti ematen duten gazteen ehunekoa aurreko urteetako batez bestekoaren antzekoa da.

Aldeak oso nabarmenak ez badira ere, emakume gazteek gizonek baino neurri handiagoan baieztatu dute hauteskunde guztietan botoa ematen dutela, eta, aitzitik, gizonek emakumeek baino proportzio handiagoan diote ez dutela inoiz bozkatzeko.

Adinak gora egin ahala, botoa eman dezaketen eta botoa emateko eskubidea erabiltzen duten gazteen ehunekoak ere gora egiten du, baita kontzienteki botoa inoiz ematen ez dutenen ehunekoak ere.

Arabako gazteek bozkatzeko dute gehien hauteskunde guztietan, eta Gipuzkoakoek, berriz, inoiz botorik eman ez dutenen ehunekorik altuenak dituzte.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen botoa emateko ohitura, kolektiboen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Bai, hauteskunde guztietan ematen duzu botoa	38	37	40	31	42	43	38	36
Batzuetan bai, beste batzuetan ez	19	19	18	11	23	18	19	18
Ez duzu inoiz botoa ematen	15	17	12	10	17	13	13	18
Lehenengo aldiz eman zenezake botoa (18 urte edo nazionalitatea lortu berria)	17	16	19	42	4	16	17	18
Ez duzu botoa emateko eskubiderik (atzerritarra)	11	11	10	6	13	8	12	9
Ed/Ee	0	0	1	0	1	2	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	637	548	352	833	285	513	387

7.8. Beti alderdi politiko berari botoa ematea

ETA BETI ALDERDI POLITIKO BERARI EMATEN DIOZU BOTOA? *


%	18-29 urte	≥ 30 urte
Bai eta berdin jarraitzeko asmoa duzu	30	44
Orain arte bai, beste batzuetan ez	12	9
Orain arte bai, baina botoa emateari uztekotan zaude	10	8
Ez, aldatu egiten duzu hauteskunde motaren arabera	26	21
Ez, aldatu egiten duzu beste arrazoi batzuen arabera	21	16
Ed/Ee	2	2
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	580	4866

*Beti edo batzuetan botoa ematen dutela diotenei egindako galdera

Botoa emateko eskubidea (beti edo batzuetan) erabili duten gazteen artean, ehuneko handixeagoa da orain arte beti alderdi berari botoa eman diotenen ehunekoa (% 52) beren botoa aldatu dutenena baino (% 47).

30 urte eta gehiagoko pertsonen aldean, ikusten dugu beti alderdi berari botoa eman diotenen eta botoa ematen jarraitzeko asmoa dutenen ehunekoa txikiagoa dela gazteen artean (gazteen % 30 eta 29 urtetik gorakoen % 44). Gazteen artean, 30 urtetik gorakoen artean baino gehiago dira orain arte beti alderdi berari botoa eman arren, alderdiz aldatzea edo abstentziora pasatzea erabaki dutenak (% 22 eta % 17, hurrenez hurren).

Hauteskundeetan boto desberdina eman dutenen ehunekoa 10 puntu handiagoa da gazteen artean (% 47) 30 urte eta gehiagokoen artean baino (% 37).



Emakumeek gutxiago aldatzen dute botoa; hala ere, emakumeen % 15 aldatzea pentsatzen ari da (gizonen % 9). 25 urtetik beherakoak ere pixka bat leialagoak dira alderdi batekiko.

Ez da alde handirik ikusten gazteak bizi diren lurralde historikoaren arabera. Hala ere, aipatzekoa da Araban beti alderdi berari botoa eman dioten eta orain botoa aldatzea edo emateari uztea pentsatzen ari diren gazteen ehunekoa handiena dela (% 28; Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, % 20 eta % 21, hurrenez hurren).

18 eta 29 urte bitarteko gazteen leialtasuna alderdi politiko berari botoa ematerakoan, kolektiboen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Bai eta berdin jarraitzeko asmoa duzu	30	27	32	34	28	28	30	29
Orain arte bai, beste batzuetan ez	12	9	15	12	12	16	12	10
Orain arte bai, baina botoa emateari uztekotan zaude	10	10	9	15	8	12	8	11
Ez, aldatu egiten duzu hauteskunde motaren arabera	26	30	23	21	28	25	28	24
Ez, aldatu egiten duzu beste arrazoi batzuen arabera	21	21	21	18	22	20	19	25
Ed/Ee	2	2	2	0	2	0	2	2
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	580	313	267	125	455	143	265	172

*Beti edo batzuetan botoa ematen dutela diotenei egindako galdera

7.9. Erakundeekiko konfiantza

JARRAIAN ZENBAIT ERAKUNDEREKO DUZUN KONFIANTZARI BURUZ GALDETU NAHI NIZUKE, AIPATUKO DIZUDAN BAKOITZAREKIKO, ESADAZU, MESEDEZ, GEHIENBAT KONFIANTZA DUZUN ALA GEHIENBAT EZ DUZUN KONFIANTZARIK.

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Unibertsitatea	80	86
Eusko Jaurlaritza	77	78
Eusko Legebiltzarra	74	72
Zure aldundia	73	74
Zure udala	72	72
Gobernuz Kanpoko Erakundeak	59	61
Sindikatuak	58	43
Europar Batasuna	53	56
Justizia epaitegiak	52	44
Enpresak	49	56
Espainiako Gobernua	27	39
Bankuak	24	19
Hedabideak	23	33
Diputatuen Kongresua	18	28
Alderdi Politikoak	15	21
Eliza katolikoa	12	29
Espainiako erregetza	9	20
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	2635


*Erakunde bakoitzarengan konfiantza dutela diotenen ehunekoak.

Gazteriak konfiantza gehien duen erakundea unibertsitatea da (% 80). Gehiengoa dira, halaber, Eusko Jaurlaritzan, Eusko Legebiltzarrean, foru-aldundian eta udalean konfiantza duten gazteak (% 70etik gorako ehunekoekin), bai eta Gobernuz Kanpoko Erakundeetan, sindikatuetan, Europar Batasunean eta justizia-auzitegietan konfiantza dutenak ere (nahiz eta azken kasu horietan ehunekoak % 52 eta % 59 artekoak izan). Ia erdiak (% 49) enpresetan konfiantza dute, eta dezente gutxiago dira ondoko erakundeetan konfiantza duten gazteak: Espainiako Gobernuan, bankuetan, komunikabideetan, Diputatuen Kongresuan, alderdi politikoetan, Eliza katolikoan edo Espainiako Monarkian (azken hau da konfiantza gutxien sortzen duena, % 9k baino ez du konfiantza monarkian).

Gazteek 30 urte eta gehiagoko biztanleek baino konfiantza handiagoa duten erakunde bakarrak sindikatuak, justizia-auzitegiak eta bankuak dira. Euskal erakunde politikoekiko (governua, legebiltzarra, aldundiak eta udalak), Gobernuz Kanpoko Erakundeekiko eta Europar Batasunarekiko konfiantza oso antzekoa da bi adin-taldeetan. Eta, bestalde, Espainiako erakunde politikoekiko (Espainiako gobernua

eta Diputatuen kongresua), enpresekiko, komunikabideekiko, alderdi politikoekiko, unibertsitatearekiko, elizarekiko eta monarkiarekiko konfiantza duten gazteen ehunekoa 30 urte eta gehiagoko biztanleen artean erregistratutakoa baino txikiagoa da.


18 eta 29 urte arteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek erakunde bakoitzarengan duten konfiantzaren alderaketa (konfiantza dutenen %)



2023an agertutako konfiantza 2022an erregistratutakoarekin alderatuz gero, aldaketa nabarmenenak Eusko Legebiltzarrean konfiantza handitzea eta Gobernuz Kanpoko Erakundeetan, sindikatuetan, Europar Batasunean eta enpresetan, aldiz, behera egitea dira.

2010eko datuekin alderatuz gero, hau da, seriearen hasierarekin, ikusten da azken 13 urteetan handitu egin dela euskal erakunde politikoetan (Eusko Jauriaritza, legebiltzarra, aldundiak eta udalak), Europar Batasunean, sindikatuetan eta justizia-auzitegiaren konfiantza duten gazteen ehunekoa eta, aldiz, behera egin duela Gobernuz Kanpoko Erakundeetan eta komunikabideetan konfiantza dutenena.

**18 eta 29 urte bitarteko gazteek erakundeekiko duten konfiantzaren bilakaera
(konfiantza dutenen %)**



	2010	2014	2016	2018	2019	2021	2022	2023
Unibertsitatea					78	85	82	80
Eusko Jaurlaritza	58	64	75	63	76	83	76	77
Eusko Legebiltzarra	52	52	71	60	72	75	67	74
Aldundia	58	51	64	59	68	76	70	73
Udala	57	63	72	66	74	71	73	72
GKEak	66	65	65	53	66	65	64	59
Sindikatuak	52	38	44	36	52	64	64	58
Europar Batasuna	47	39	47	48	63	67	64	53
Justizia epaitegiak	28	26	36	26	32	50	55	52
Enpresak	48	48	49	38	51	62	55	49
Espainiako Gobernua	26	17	20	19	27	29	27	27
Bankuak			20	18	28	26	24	24
Hedabideak	36	37	37	26	42	36	23	23
Diputatuen Kongresua	19	13	17	16	21	23	19	18
Alderdi politikoak	12	12	16	12	19	18	14	15
Eliza katolikoa	12	18	20	15	20	19	14	12
Espainiako Monarkia					14	11	11	9

Unibertsitatean dute konfiantza gehien gazteen kolektibo guztiek, 25 urtetik beherakoek izan ezik, horiek konfiantza handiagoa baitute Eusko Jaurlaritzan eta bere udalean, unibertsitatean baino.

Emakume gazteek gizonek baino konfiantza handiagoa dute unibertsitatean, Eusko Jaurlaritzan, aldundian, udalean, Gobernu Kanpoko Erakundeetan, Europar Batasunean, Espainiako Gobernuan eta bankuetan, eta, aldiz, gizonek baino konfiantza gutxiago dute alderdi politikoetan eta Eliza Katolikoan.

25 urtetik beherakoek konfiantza handiagoa dute Eusko Jaurlaritzan, udaletan, Gobernu Kanpoko Erakundeetan, sindikatuetan, Europar Batasunean, justizia-auzitegietan, enpresetan eta bankuetan, baina konfiantza gutxiago dute unibertsitatean, aldundietan, Espainiako Gobernuan, Diputatuen Kongresuan eta Espainiako monarkian.

Arabako gazteek dute konfiantza handiena unibertsitatean, euskal erakunde politikoetan, Diputatuen Kongresuan eta Eliza Katolikoan. Gipuzkoako gazteak dira Gobernu Kanpoko Erakundeetan, Europar Batasunean, enpreetan, Espainiako Gobernuan, bankuetan eta komunikabideetan konfiantza handiena dutenak. Bestalde, Bizkaiko gazteen kasuan aipatzekoa da ez direla erakunde bakar batean ere besteak baino gehiago fidatzen; aitzitik, sindikatuak, justizia-auzitegiekiko, enpresekiko, komunikabideekiko, alderdi politikoekiko eta Espainiako monarkiarekiko duten mesfidantza handia da daturik nabarmenena.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen erakundeekiko konfiantza, kolektiboen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Unibertsitatea	80	77	83	75	83	88	81	74
Eusko Jauraritza	77	73	82	82	73	81	76	71
Eusko Legebiltzarra	72	67	80	77	70	82	73	68
Zure aldundia	73	68	79	70	75	75	73	72
Zure udala	74	73	74	75	73	84	71	74
Gobernu Kanpoko Erakundeak	59	55	66	71	52	56	58	62
Sindikatuak	53	49	59	56	51	49	47	63
Europar Batasuna	58	57	59	66	53	64	52	65
Justizia epaitegiak	49	48	49	53	46	55	39	61
Enpresak	51	51	52	55	50	55	48	56
Espainiako Gobernua	27	23	33	17	33	25	25	32
Bankuak	24	22	27	29	21	22	21	30
Hedabideak	23	23	24	23	21	23	18	32
Diputatuen Kongresua	18	17	18	13	21	22	16	18
Alderdi Politikoak	12	16	8	11	13	21	9	13
Eliza katolikoa	15	17	11	14	15	19	10	20
Espainiako erregetza	9	10	7	4	12	14	6	11
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	212	183	108	287	95	171	129

*Erakunde bakoitzarengan konfiantza dutela diotenen ehunekoa.

8. LABURPENA

Jarraian, txostenaren emaitza nabarmenetako batzuk aurkezten dira.

Norberaren egoera pertsonalari buruz...

Euskadiko gazteek positiboki baloratzen dute beren egoera pertsonala (10etik 7,2ko puntuazioa ematen diote, batez beste), batez ere 25 urtetik beherakoek. Gehiengoa dira, halaber, beren ekonomia- eta lan-egoerak onak direla diotenak, baina hamarretik lauk aitortu dute hilaren amaierara iristeko arazoren bat dutela.

Emakumeak ez dira gizon gazteak bezain pozik sentitzen beren bizitzarekin, gizonak baino okerrago baloratzen dute beren egoera ekonomikoa eta laborala, eta, era berean, neurri handiagoan adierazten dute hilaren amaierara iristeko arazoren bat dutela.

Bizi diren inguruari buruz...

Bizi diren ingurunearen balorazioa ere positiboa da eta herriko edo auzoko arazoaren artean aparkaleku arazoak nabarmentzen dira. Gazte gehienek uste dute bizi diren herria edo hiria leku seguruak direla, baina erabat seguru sentitzen direnen ehunekoa hamar puntu baxuagoa da emakumeen artean gizonen artean baino.

Euskadiri dagokionez...

Euskadiko egoeraren balorazio orokorra ez da egoera pertsonalari buruzkoa bezain positiboa, eta 10etik 6,1 puntu lortu du. Nolanahi ere, gazteek uste dute Euskadiko egoera politikoa eta ekonomikoa onak direla, eta nahiko baikorrak agertzen dira Euskadiren etorkizunari dagokionez. Emakumeak gizonak baino baikorragoak dira.

Euskadiko arazo nagusiak 2023an, gazteen iritziz, enpleguarekin lotutakoak dira, eta hala adierazten dute hiru gaztetik bik. Gainera, hiru gaztetik batek etxebizitza-arazoak, arazo ekonomikoak eta osasun-zerbitzuekin lotutako arazoak ere aipatzen ditu. Lau arazo mota horiek aipatu dituzten gazteen ehunekoak nabarmen egin du gora 2021etik 2023ra. Etxebizitzarekin lotutako arazoak gehiago aipatzen dituzte gazteek 30 urte eta gehiagoko pertsonak baino, eta gazteek, aldiz, 30 urtetik gorakoek baino gutxiago aipatu dituzte osasun eta osasungintzarekin lotutako arazoak. Sexuaren arabera aldeei dagokionez, ikusten dugu emakumeek gizonak baino gehiago aipatzen dituztela lan-merkatuarekin, osasunarekin eta delinkuentziarekin edo segurtasunik ezarekin lotutako arazoak, eta, aldiz, gizonak baino gutxiago aipatzen dituztela immigrazioarekin erlazionatutako arazoak.

Euskadin eskaintzen diren zerbitzu publikoek ere balorazio positiboa jaso dute gazteen artean, baina balorazio hori jaitsi egin da aurreko urteetakoekin alderatuta. Gazteek positiboki baloratzen dute Eusko Jaurlaritzak arlo hauetan izan duen jarduera: turismoa, kultura, bakea eta bizikidetzaren, ingurumena, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, euskara, ekonomia eta hezkuntza. Aitzitik, bereziki kritikatu du gobernuaren jarduna etxebizitzaren, justiziaren eta enpleguaren arloetan. Osasungintzaren, gizarte-ongizatearen, herri-lanen, azpiegituren eta herritarren segurtasunaren arloetan ere ez dira % 50era iristen balorazio positiboa egin duten gazteen ehunekoak. Nolanahi ere, gazteen balorazioak positiboagoak dira, oro har, 30 urte eta gehiagoko biztanleenak baino.

2021. eta 2022. urteekin alderatuta, gora egin du 2023an Eusko Jaurlaritzak bakea eta bizikidetzaren, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren, euskararen, ekonomiaren, hezkuntzaren, enpleguaren, justiziaren eta etxebizitzaren arloetan izandako jarduera positibotzat jo duten gazteen ehunekoak (bereziki nabarmena da ekonomiaren arloko jarduera ontzat jo dutenen ehunekoak izan duen hazkundea). Eredu bakar batean egin du behera, bai 2021eko bai 2022ko datuekin konparatuz gero,

balorazio positiboak eman dituzten gazteen ehunekoak, eta osasunaren arloa da; 2022an sailkapeneko seigarren postutik 2023an hamabigarrenera jaitsi baita.

Emakume gazteak gizon gazteak baino askoz ere kritikoagoak dira Eusko Jaurlaritzak hainbat esparrutan izan duen jarduna balioestean. Emakumeen eta gizon gazteen balorazioen arteko alderik handienak gobernuaren enplegu- eta ekonomia-jarduerari buruzkoak dira.

Gipuzkoako gazteak dira Euskadiko zerbitzu publikoekiko kritikoenak, nahiz eta lurralde horretan bizi diren gazteen artean ere balorazio gehienak positiboak diren. Gipuzkoako gazteek baloratzen dute okerren Eusko Jaurlaritzak turismoaren, ingurumenaren, herri-lan eta azpiegituren eta etxebizitzaren arloetan izan duen jarduna.

Espainiari dagokionez...

Espainiaren egoeraren balorazioa, oro har, negatiboa da. Euskadiko gazteek 10etik 4,8ko puntuazioa eman diote, eta gehienek uste dute Espainiako egoera ekonomikoa eta politikoa txarrak direla. Balorazio negatibo horiek bat datoz 30 urte eta gehiagoko biztanleek emandakoekin.

Espainiako egoera ekonomiko eta politikari buruz emakume gazteek egindako balorazioak, negatiboak izan arren, ez dira gizon gazteek egindakoak bezain txarrak. Gipuzkoan bizi diren gazteek gehien kritikatzan dituzte Espainiako egoera ekonomikoa eta politikoa.

Hauexek dira bere jarrera eta iritzi politikoa

Euskadiko hiru gaztetik batek dio politikan interes handia edo nahikoa duela, gizonek emakumeek baino gehiago. Gazte gehienek zentrokoak edo ezkerrekoak direla diote (batez bestekoa, 0tik 10era doan ezker-eskuin eskalan, 4,1 da), eta nazionalismoaren eskalan erdian daude (10etik 5,1). Gazteak ez dira independentziaren alde edo aurka argi eta garbi jartzen, multzorik handienak egoeraren arabera erabakiko luke bere jarrera. Gazteek 30 urtetik gorako biztanleek baino adostasun handiagoa dute independentziarekin, nahiz eta desadostasuna areagotu den gazteen artean.

Gipuzkoako gazteek gainerakoek baino interes handiagoa dute politikarekiko, eta Arabako edo Bizkaiko gazteek baino ezkerrekoago eta abertzaleago definitzen dute beren burua. Gainera, Euskadiren independentziaren aldeko gazteen ehunekoa aurka daudenena baino zertxobait handiagoa den lurralde bakarra da Gipuzkoa.

Gazteak ez dira alderdi politikoetatik hurbil sentitzen, bakar batek ere ez du 5 lortzen, 0-10 arteko balorazio-eskalan, baina EH Bildu da begikoena eta, gainera, 30 urtetik gorakoek baino puntuazio altuagoa ematen diote EH Bilduri. Gazteen % 43k ez du inoiz bozkatu, ez duelako nahi izan edo ezin izan duelako, eta noizbait botoa eman dutenen artean, % 30ek beti alderdi berari eman dio botoa eta horretan jarraitzeko asmoa du; gehiengoak bere botoaren zentzua aldatu du edo hurrengo hauteskundeetan aldatzeko asmoa du.

Gizon gazteen artean, alderdi politiko batengandik hurbil sentitzen ez direnen ehunekoa gehiengo da (% 52, eta emakume gazteen artean, berriz, % 41), eta, izan ere, gizonek emakumeek baino puntuazio baxuagoak ematen dizkiete alderdi politiko guztiei, Voxi izan ezik. Gizonek emakumeek baino gehiago adierazi dute ez dutela bozkatzeko, eta botoa ematen dutenen artean, boto-fideltasuna emakumeena baino txikiagoa da.


Gipuzkoan, gazte gehiago sentitzen da alderdi politikoren batengandik hurbil, eta lurralde horretako gazteen artean, EH Bilduk 5,0ko batez besteko puntuazioa lortzen du; hala ere, lurralde horretan besteetan baino gazte gehiagok diote inoiz ez dutela botoa ematen.

Unibertsitateak du euskal gazteriaren konfiantza handiena, eta haren atzetik daude Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, aldundiak eta udalak. Gazteen % 70ek baino gehiagok aipatutako erakundeetan konfiantza du. Aitzitik, gazteek konfiantza gutxien duten erakundea Espainiako monarkia da, eta haren

atzetik daude Eliza Katolikoa, alderdi politikoak eta Diputatuen Kongresua (gazteen % 20k baino gutxiagok diote erakunde horiekiko konfiantza dutela).

Emakumeek gizonen baino konfiantza handiagoa dute galdetu diren erakunde gehienetan. Deigarria da gizonen baino konfiantza gutxiago dutela alderdi politikoetan, nahiz eta 0-10 eskalan zertxobait hobeto puntuatu. Emakumeek ere konfiantza-ehuneko txikiagoak dituzte gizonen baino, Eliza Katolikoari eta Espainiako monarkiari dagokienez.

Bizkaiko gazteak dira erakundeetan konfiantza gutxien dutenak. Ez dago erakunde bakar bat, proposatutakoen artean, Bizkaian konfiantza-ehunekorik handiena lortzen duena. Lurraldeen arteko alderik handiena Europar Batasunarekiko konfiantzari dagokiona da; Gipuzkoako gazteen % 63k dute konfiantza EBn, eta Arabako eta Bizkaikoen ehunekoak, berriz, % 49 eta % 47 dira, hurrenez hurren.



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD